



# AURKEZPENA

## PRESENTATION

2019 urtean, Seaskak eta ikastolek mende erdia beteko dugu (1969-2019) 50 urteko historia, bost hamarkada borroka eta ametsez bete.

Urte guziz, gure 36 ikastolek antolatzen dituzten gertakari guziekin (antzerki, bertsu afari, kontzertu, erakusketa, kantaldi eta abar...) Iparraldeko hiru probintzien herrietako bizi kulturala inarrostean dute. 2019 urtean berdin izanen da, 36 ikastolek segituko baitute beren pestak eta gertakariak antolatzen, bistan dena bi sos biltzeko, bainan batez ere beren herriko "lokarri soziala" bermatzeko eta euskara & euskal kultura biziarazteko.

Bainan 2019 urte berezia baita, Seaskako burasoek erabaki dute urtean zehar hainbat gertakari berezi batzuen antolatzea eta eskaintza kultural zabal baten proposatzea, publiko desberdinak hunkitzeko. Adibidez, datorren otsailaren 16an, Seaskak kontzertu handia antolatuko du Biarritzeko Iraty aretoan : hor izanen dira gaur egungo talde garantzitsuenak (**Berri Txarrak** eta **Willis Drummond**) baita ere ikastolekin harreman hertsia dituzten taldeak: Seaskako ikasle ohiekin osatuak diren **Txakatuk** eta **Diabolo Kiwi** taldeak eta Basabürüko ikastolako haurrekin kantu bat sortu duten **Xiberoots** xiberutarrak. Gainera, azpimarratzekoa da txartelak agortuak direla aspalditik.

1970-1980 hamarkadetan, euskal rocka hasi zelarik hedatzen, sortu berriak ziren euskal irratiek errola nagusia jokatu zuten, artisten kantuen ezagutarazteko. Ber denboran, herriko pestetan gomiatuak ez ziren taldeek adierazpen xoko bat bazuten ikastolek antolatzen zituzten "Rock gauak" kontzertu berezietan. Geroztik, gaztetxeek eta herrietako pesta komiteek euskaraz kantatua den rockari premiazko lekua eman diote.

2019 urtean, berriro halako "rock gaua" eder baten antolatzeko gogoia izan dugu, belaunaldi desberdinak nahasteko xedearekin (gazteak, burasoak, euskal kulturatik "urrun" ibiltzen den publiko musikazalea...) Miarritzeko Iraty gelan, otsailan, gaueko ainarak eta euskalzaleak dantzan aritzen ahalko dira euskaraz egiten den rock hoberena gozatz.

*Chaque année les 36 ikastola de la Fédération Seaska organisent de multiples événements qui contribuent à la vie culturelle et au maintien du lien social de nos villes & villages. Il en sera de même en 2019.*

*Toutefois 2019 est un peu spéciale, car pour célébrer les 50 ans de la création des ikastola (1969-2019) Seaska va organiser cette année de nombreux événements pour toucher des publics différents.*

*Ainsi tout au long de l'année des animations variées sont prévues (spectacles, colloque etc...)*

*Le 16 février nous aurons ainsi le plaisir d'être à Biarritz à la Halle Iraty pour y organiser un concert qui sera l'un des premiers temps forts de notre anniversaire. L'événement sera d'autant plus remarquable que toutes les places mises en vente sont épuisées depuis plusieurs semaines.*

*Dans les années 70 et 80, les ikastola avaient lancé la mode des « Rock Gaua » (les nuits du Rock) véritable tremplins pour les groupes locaux qui étaient souvent boudés par les comités des fêtes des villages, les discothèques voire les organisateurs habituels de concerts. En outre ces concerts qui se tenaient souvent dans des trinquets humides à la sono assourdissante permettaient de financer nos écoles en langue basque.*

*La soirée du 16 février renoue un peu avec cette tradition de la rock gaua avec les deux plus grands groupes de rock d'expression basque du moment (**Berri Txarrak** et **Willis Drummond**) et trois formations qui ont un lien privilégié avec les ikastola : **Txakatuk** et **Diabolo Kiwi** composés d'anciens élèves de Seaska et **Xiberoots** qui vient de sortir une chanson écrite avec les enfants de l'ikastola de Haute Soule.*





Gure kontzertu handiaren antolatzeko, Iparraldeko areto handiena hautatu dugu, Miarritzeko Iraty gela. Kontzertu gelaren 2500 m<sup>2</sup>-ek jinen diren 4500 ikusleak aterbetuko dituzte. Publikoaren harrera ahal bezain ongi segurtatzeko, talotegia kanpoan kokatua izanen da.


*Pour organiser notre grand concert, nous avons choisi la plus grande salle du Pays Basque Nord, la Halle Iraty de Biarritz*

*Les 2500 m<sup>2</sup> de la salle pourront accueillir les 4500 spectateurs. Pour garantir un meilleur accueil du public le traditionnel stand de talo des ikastola sera disposé à l'extérieur de la salle de concert.*



Ezenatokiaren muntatzeko, bi eguneko lana beharko da.

*Deux jours de montage seront nécessaires pour l'installation de la structure scénique.*



# DIABOLO KIWI



Bi urte luzez erdi lo egon ondoan, 2018ko maiatzean iratzarri da Diabolo Kiwi laukote moduan. « Garaziko popero » diote batzuk, « rockero frustratu » besteez, baina taldekideek funka dute ardatz. Erritmika kokinen eta melodia sarkorren arteko nahasketari fruitu koktel usaina dario. Leireren ahots liluragarria, Julenen makil joko finak baita Allande eta Amaiurren soka bipilek ere laguntzen dute, teklatuek kantu bakoitza beztitu eta borobiltzen dutelarik. Fresko zein bizi, plazera eman eta hartzeko gogoarekin dabilta taula gainean. Gure gomita onartu zutelarik ainitz poztu ginen zeren eta Seaskako ikasle ohiak dira. Otsailaren 16an, gaualdia hasiko dute Biarritzeko gela erraldoiaren berotzeko helburuarekin. Lortuko dute dudarik gabe.



*Le quatuor Diabolo Kiwi est originaire de Basse Navarre et s'inspire de la musique funk dans ses compositions. Ces anciens élèves des ikastola de Seaska auront le redoutable privilège de débiter la soirée du 16 février et leur mission consistera à "chauffer" l'immense Halle Iraty. Nul doute qu'ils y parviendront tant ils dégagent sur scène une fraîcheur et une énergie communicatives. Les musiciens sont Leire (chant et claviers) Julien (batterie - chœurs) Amaiur (guitares - chœurs) et Allande (base - chœurs) Leur 1er album sortira cet été.*

# XIBEROOTS

Xiberuko reggae taldea 2013 urtean sortu zen ere eta bere lehen diskoa 2018an argitaratu zuen "Maule muffin" eta berehala bere lekua egin du gaurko euskal musikaren paisaian. Beren "Agur, Xiberoa" kantu klasikoaren bertsio bitaminatuak Iparraldeko bazter guziak dantzarazi ditu.

Xiberoots taldeko kideak: Jon Etxekopar (ahotsa ta tromboia), Pette Jaragoihen (kitarra ta ahotsa), Jordi Foucher (perkusioa), Niko Guiresse (teklatuak), Antoine Stassinnet (kitarra) eta Armand Ahusborde (kitarra)



*Ce groupe de reggae formé en 2013 est originaire de Soule et a connu une belle reconnaissance avec la sortie de son 1er album en 2018 ("Maule muffin") Leur reprise vitaminée du chant traditionnel "Agur, Xiberoa" a fait danser les foules. Ils concluront le concert du 16 février de façon festive.*

# willis drummond



Zazpi diska, ehunka kontzertu, emanaldi aipatuak eta azpimarratuak ARF, Sonorama, Hatortxu rock, Monkey Week, Mundaka Festival ala EHZ bezalako festibaletan - Placebo, the Mars Volta ala Black Sabbath-ekin konpartituz eszenatokia besteak beste, bira bat Frantzia osoan Detroit taldearekin, Zenith areto handienak eta Paris-eko Olympia gela mitikoa bisitatuz, bira Europarrak Espainia, Frantzia, Alemania ala Belgika zeharkatuz, SOLD OUT serie bat Euskal Herrian eta bira bat Japonian 2018an, WILLIS DRUMMOND da, dudarik gabe, gaurko euskal eszenaren talde aktiboen eta ezagunenetak bat.

Joan den abenduko Durangoko azokarako argitarazi zuten **"Willis Drummond Live"** diskoa, estudioko lanen errepaso bat bezala, jarraitzaile eta lagunek aspaldian eskatzen zutena... Willis Drummond hirukotea zuzenean entzuteko taldea delako lehenik !

Iraty gelaren oholoze handiaren gainean, beren energiak dimentsio harrigarri bat hartuko du, dudarik gabe!



*Sept albums, des centaines de concerts, des lives remarqu s dans des festivals comme ARF, Sonorama, Hatortxurock, Monkey Week, Mundaka Festibala ou EHZ o  ils ont partag  l'affiche et la sc ne avec des groupes comme Placebo, The Mars Volta ou Black Sabbath, une tourn e avec le groupe Detroit qui les a emmen  dans des nombreux Z niths et le mythique Olympia, des tourn es Europ ennes   travers l'Espagne, la France, l'Allemagne ou la Belgique, une s rie de sold-out lors de la pr sentation de leur dernier album, une tourn e au Japon en 2018... WILLIS DRUMMOND est, sans nul doute, un des groupes les plus actifs et reconnus de la sc ne basque actuelle. En d cembre dernier ils ont publi  l'album **"Willis Drummond Live"** comme un r sum  des albums studios pr c dents. Un objet que les fans et les ami(e)s du groupe r clamaient depuis longtemps. Car le trio est avant tout un groupe de b tes de sc ne. Le large plateau d'Iraty leur permettra de donner la pleine mesure de leur  nergie rock.*



Joan den abenduan, egiazko lur ikara iragan zen euskal musikaren mundutxoan. Gorka Urbizuk eta bere bi lagunek Berri Txarrak taldea geldituko zutela jakinarazi baitzuten, azken kontzertu bira baten ondotik.

Berehala, izigarrizko sukarra piztu zen : 2019ko azaroan Iruñan eginen duten azken kontzertuaren 10 000 lekuak egun bakar batez saldu ziren.

25 urtez, 9 dizka atera dituzte eta European, Amerikan eta Asian egin dituzten kontzertuetan milaka eta milaka lagun etorrazi dituzte. 2011 urtean, Senpereko Herri Urrats pestan ere aritu ziren, eta "laku bat munduan" kantu berezia asmatu zuten, iparraldeko ikastolak laguntzeko. Plazer handi bat da guretako Seaskaren 50 urteen pestan jokatzeko gomita onartu baitute.



*En décembre dernier, petit tremblement de terre dans la sphère culturelle basque : le chanteur guitariste Gorka Urbizu annonçait avec ses deux acolytes de Berri Txarrak (« Mauvaises Nouvelles ») qu'ils mettaient fin à 25 ans de collaboration et que la tournée 2019 serait la toute dernière. Cela a provoqué un engouement sans précédent : les 10 000 places de leur dernier concert de Pampelune (novembre 2019) se sont arrachées en quelques heures.*

*Créé en 1994, le groupe navarrais a produit neuf albums, rassemblé des centaines de milliers de spectateurs lors de concerts donnés en Europe, en Amérique ou en Asie... En 2011, ils avaient notamment participé à la grande fête des ikastola « Herri Urrats » autour du lac de St Pée sur Nivelle et ils avaient même composé l'hymne de cette édition.*


*C'est donc un grand plaisir pour nous que de les retrouver sur la scène de la Halle Iraty.*



Berri Txarrak - Herri Urrats 2011ko maiatzaren 8an

Kontzertu gelaren ondoan aparkatzeko...

*Parkings autour de la Halle Iraty*



## Ordutegia

19:00 Ateen idekitzea  
 19:00 TXAKATUK TXARANGA  
 19:30 DIABOLO KIWI  
 20:30 WILLIS DRUMMOND  
 22:00 BERRI TXARRAK  
 00:00 XIBEROOTS

Eta ondotik...

pestak segituko du Biarritzeko Gaztetxean !

## *Horaires indicatifs*

*19:00 Ouverture des Portes  
 19:00 TXAKATUK TXARANGA  
 19:30 DIABOLO KIWI  
 20:30 WILLIS DRUMMOND  
 22:00 BERRI XTARRAK  
 00:00 XIBEROOTS*

*Suite de la fête au gaztete de Biarritz !*



Ikusle gazteen belarrien osasunarendako, publikoari babesak dohainik eskainiko dizkiogu.

*Par souci de prévention du jeune public, des protections auditives seront distribuées gratuitement.*

Bertan jateko : taloak, paella...



*Restauration prévue sur place : talos & paella*





**BIARRITZ**



**eke-icb**

EUSKAL KULTUR ERAKUNDEA  
INSTITUT CULTUREL BASQUE



**ikastolenelkartea**



**panda**  
ARTIST MANAGEMENT

## **XEHETASUNAK**

### **Infos**

Ramuntxo

05 59 52 49 24

06 75 40 58 50

[seaska-ramuntxo@orange.fr](mailto:seaska-ramuntxo@orange.fr)